

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernua Mexikon izango da Nafarroako enpresa eta erakundeekin batera, nekazaritzako elikagaien sektorerako aukera komertzialak bilatzeko asmoarekin

Manu Ayerdi ordezkariaren buru dela, Puebla, Ciudad de México eta Chihuahua bisitatuko dituzte

Astelehena, 2018.eko urriak 8

Nafarroako enpresen eta erakundeen ordezkari bat, Garapen Ekonomikoko lehendakariordea, Manu Ayerdi, buru duela, Mexikon izango da aste honetan, Nafarroako nekazaritzako elikagaien eta nekazaritza bioteknologikoaren sektorerako aukera komertzialak bilatzeko asmoarekin.

Nafarroako Gobernuko ordezkarienez gain, misioan honako hauek hartu dute parte: Nafarroako, Errioxako eta Aragoiko Nekazaritzako Elikagaien Industrien Elkarteak; Nekazaritzako Elikagaien Teknologiako Zentro Nazionala; Nafarroako nekazaritzako elikagaien klusterra; Nagrifood; eta honako enpresa hauek: Agropestalart, Grupo AN, BrioAgro, FS Estructuras, Embutidos Goikoa, Agrupación Gourmex, Naparbier, Pentabiol eta Tuttipasta.

Eginkizun instituzional honetan, Chihuahua eta Puebla bisitatuko dituzte; biak ere, haien ekonomia eta enpresa egoera dela-eta, Nafarroako sektoreko enpresentzat interesgarritzat jo diren estatuak. Hasteko, Pueblan, inguruko supermerkatuak eta banatzaileak bisitatuko dituzte. Jarraian, Nafarroaren erakunde-aurkezpena egin ondoren, misioan parte hartu duten enpresak eta erakundeak zuzenean, B2B, elkartuko dira Mexikoko enpresekin, unibertsitateekin eta zentro teknologikoekin. Halaber, Pueblan, han instalatuta dauden Nafarroako bi enpresa bisitatuko dituzte, Truck And Wheel eta Cebi Group, inguruan bizi diren nafarrekin elkartzearekin batera.

Chihuahuan misioa jarraitu baino lehen, Ciudad de Mexicon geratuko dira, eta Manu Ayerdi lehendakariordea Mexikoko Espainiako enbaxadoreak, Juan López – Dórigak, eta herrialdeko kontseilari ekonomikoak eta komertzialak, Jorge Marine Brandik, hartuko dute. Halaber, Concaminekin elkartuko dira, Mexikoko Industria Ganberen Konfederazioarekin.

Lankidetzak akordioa sinatzea

Misio komertzialaren azken etapa Chihuahuan garatuko da, eta beste behin topaketa komertzialak egingo dituzte Nafarroako eta Mexikoko ordezkariak, oraingoan Canacintrak, Mexikoko Eraldaketaren Industriaren Ganbera Nazionalak, antolatutako azokaren esparruan.

Chihuahuan, Nafarroako ordezkari bat udalerrira eta estatu mailako

ordezkariekin bilduko da, eta bi lurraldeen artean ulermen memorandoa edo lankidetzak akordioa sinatzea aurreikusten da. Zehazki, Nafarroako Gobernuordezkariak honako hauekin bilduko dira: Javier Corral Jurado, Chihuahuako Estatuko gobernadorea; María Eugenia Campos Galván, Chihuahuako Estatuko Udal lehendakaria; eta Alejandra De La Vega Arizpe, Chihuahuako Berrikuntzako eta Garapen Ekonomikoko Idazkaritzakoa.

Mexikoko merkatuak duen pisua

Nabarmenezkoa da Mexiko merkatu estrategikotzat hartzen dela Nafarroako Nazioarteko Planaren barruan, sektore hauetarako: Automozioa eta Mekatronika, Elikagaien Katea eta Berriztagarriak eta Baliabideak. 2017. urtean, Espainiako esportazioen hamahirugarren helmuga izan zen, eta estatuko esportazioen %1,7ra iritsi zen. Nafarroari dagokionean, esportazioen bederatzigarren helmuga izan zen, %2,6arekin.

Mexikok 127 milioi biztanle baino gehiago ditu. Bertan, elikadura-ohiturak aldatzen ari dira, bizitza-estandarrak gehitzen, supermerkatu handiak zabaltzen eta gero eta elikagai gehiago inportatzen; hori dela-eta, aukera argiak irekitzen ditu elikadura osasungarri eta gourmetarentzat.

Mexikoko nekazaritza-merkatua eta nekazaritzako bioteknologia, beraz, aukera ezin hobeak dira Nafarroako sektoreko enpresentzat, Mexikoko elikagaien industriako hornitzaile potentzialak bezala.